

## Xedapen Orokorrak

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2223

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 21ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearena, honako hau argitaratzekoa: Gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia, 2011ko martxoaren 10eko Gobernu kontseiluan onartua.

Unibertsitateak, bere ahalmenaz baliatuta, arau eta prozedurak ezarri behar ditu bere gestioaren arlo desberdinetako zereginak tramitatu ahal izateko.

Honekin batera doan proposamena Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak onetsi zuen 2011ko martxoaren 3an, eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2011ko martxoaren 10ean.

Aipaturiko guztia kontuan hartuta, eta otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 10.2 artikuluan dioena betetzeko (2004-03-12ko EHAA), honako hau

EBATZI DUT:

Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, Gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia, 2011ko martxoaren 10eko Gobernu kontseiluan onartua.

Leioa, 2011ko martxoaren 21a.

Errektorea.

EE (2011-02-25eko Erabakia, 2011-03-17ko EHAA)

Akademia antolakuntzako errektoreordea,  
CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

## Disposiciones Generales

### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

2223

RESOLUCIÓN de 21 de marzo de 2011, de la Vicerrectora de Ordenación Académica de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se procede a la publicación de la Normativa sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, aprobada en el Consejo de Gobierno de 10 de marzo de 2011.

La Universidad, en el ejercicio de sus competencias, debe establecer normas y procedimientos para tramitar las tareas de las diferentes áreas de gestión.

La propuesta adjunta fue informada favorablemente por la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado el 3 de marzo de 2011, y aprobada por el Consejo de Gobierno en sesión celebrada el 10 de marzo de 2011.

Por todo lo anterior, y en cumplimiento del artículo 10.2 de la Ley 3/2004 de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco (BOPV 12 de marzo de 2004).

RESUELVO:

Proceder a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Normativa sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, aprobada en el Consejo de gobierno de 10 de marzo de 2011.

Leioa, a 21 de marzo de 2011.

El Rector.

PD (Resolución 25-02-2011, BOPV 17-03-2011)

La Vicerrectora de Ordenación Académica,  
CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL  
HERRIKO UNIBERTSITATEAN GRADU AMAIERAKO  
LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO  
ARAUTEGIA

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak III. kapituluan, graduiko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horietan, gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela eta beste atal baten gehitzen du gradu amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko dela eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko dela. Ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen eta hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu beharko du bere autonomia erabiliz.

Testuinguru honetan, gradu amaierako lanak modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko xedez, komeni da arau orokor batzuk ezartzea, nahiz eta titulazio bakoitzak izan ditzakeen partikularitasunak kasuan kasuko ikastegietako batzarrek aztertu eta behar bezala arautu eta argitaratu beharko dituzten. Hortaz, arautegi honek, orokorra izanik, malgutasun nahikoa emango dio ikastegi bakoitzari prozedura desberdinak orokorrean erabili edo horiek ikastegiko espezifikotasunei egokitzeko.

**1. artikulua.**– Helburua eta aplikazio eremua.

1.1.– Arautegi honek UPV/EHUK ematen dituen graduiko ikasketa planetan zehaztutako gradu amaierako lanak definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.

1.2.– Araututako jarduera profesioaletan aritzeko gaitasuna ematen duten tituluetak gradu amaierako lana kasuan kasuko tituluak egiaztatze baldintzak zehazten dituen aginduan xedatutakoaren arabera arautuko da; arautegi hau ere aplikatuko da baina betiere aipatutako aginduaren menpe egongo da.

1.3.– Arautegi honen edukia besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

1.4.– Fakultate edo eskoletako batzarrek arautegi hau garatu ahaliko dute ikastegi bakoitzean ematen diren graduiko titulu bakoitzaren ezaugarrietara moldatzeko. Edonola ere, ikastegi bakoitzak zehazten dituen arauak Ikastegiko Batzarrean onartu eta ikastegian bertan argitaratu beharko dira.

NORMATIVA SOBRE LA ELABORACIÓN Y  
DEFENSA DEL TRABAJO FIN DE GRADO EN  
LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL  
HERRIKO UNIBERTSITATEA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, establece en el Capítulo III, dedicado a las enseñanzas oficiales de Grado, que «estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un trabajo fin de Grado», añadiendo en otro apartado que «El trabajo de fin de Grado tendrá entre 6 y 30 créditos, deberá realizarse en la fase final del plan de estudios y estar orientado a la evaluación de competencias asociadas al título», sin recoger otra disposición sobre el proceso de elaboración y evaluación que, en consecuencia y en el ejercicio de su autonomía, deberá ser regulado por cada Universidad.

En este contexto y con la finalidad de unificar los criterios y procedimientos que garanticen una actuación homogénea en la planificación y evaluación de los Trabajos Fin de Grado (en adelante TFG), resulta conveniente establecer las siguientes normas de carácter general, sin perjuicio de las posibles particularidades de cada titulación que necesariamente deberán ser atendidas y convenientemente reguladas y publicadas por las correspondientes Juntas de Centro. Por tanto, esta normativa supone un marco genérico lo suficientemente amplio para que cada centro pueda, o bien utilizar en su forma más básica los diferentes procedimientos, o bien adaptar este marco a sus propias especificidades.

**Artículo 1.**– Objeto y ámbito de aplicación.

1.1.– Esta normativa contiene las directrices relativas a la definición, realización, defensa, calificación y tramitación administrativa de los TFG que se establezcan en los diferentes planes de estudio de Grado impartidos por la UPV/EHU.

1.2.– El TFG en los títulos que habiliten para el ejercicio de actividades profesionales reguladas, se regirá por lo dispuesto en la Orden que establezca los requisitos para la verificación del correspondiente título, sin perjuicio de la aplicación, con carácter subsidiario, de la presente normativa.

1.3.– El contenido de esta normativa se completa con el resto de reglamentaciones y procedimientos de la UPV/EHU que se encuentren en vigor y que se refieran, entre otras, al sistema de evaluación, al reconocimiento y transferencia de créditos, y a la movilidad de estudiantes.

1.4.– Cada Junta de Facultad o Escuela podrá desarrollar la presente normativa para adecuarla a las características propias de cada uno de los títulos de Grado que se impartan en su centro. En cualquier caso, las normas que establezcan los centros deberán ser aprobadas por su junta de centro y ser publicadas en el correspondiente centro.

**2. artikulua.**– Gradu amaierako lanaren izaera.

2.1.– Gradu amaierako lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.

2.2.– Gradu amaierako lana titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuek bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiarri edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.

2.3.– Gradu amaierako lana defendatu eta ebaluatu ahal izateko, egiaztatu egin behar da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela da eta hortaz, gradu amaierako lanari dagozkion kredituak izan ezik, graduko titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.

Errendimendu akademikoaren tasak lortzeko ez dira kontuan hartuko gradu amaierako lanaren matrikulako emaitzak, gainerako kreditu guztiak ez gainditzeagatik proiektua defendatzeko aukerarik egon ez bada.

2.4.– Gradu amaierako lana Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, gradu amaierako lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

**3. artikulua.**– Izena ematea eta deialdiak.

3.1.– Gradu amaierako lanaren matrikula unibertsitateak matrikularako ezarritako epearen barruan egingo da, lanak dituen kredituen arabera prezio publikoak ordainduz. Gradu amaierako lanaren matrikula egin ahal izateko ikasketa plana bukatzeko eskatzen diren irakasgai guztietan matrikulatuta egon behar da nahitaez. Salbuespenezko arrazoi eta zioengatik, ikastegietako batzarrek ezohiko epeak ezarri ahal izango dituzte gradu-amaierako lanaren matrikula egiteko.

3.2.– Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte akademiko bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Ikaslearen ebaluazioa ez bada egiten ikasturterako ezarritako deialdietan edo lana ez bada deialdi horietan defendatzen, ikasleak hurrengo ikasturte akademikoan berriro egin behar du matrikula.

**Artículo 2.**– Naturaleza del trabajo fin de grado.

2.1.– El TFG supone la realización por parte de cada estudiante y de forma individual de un proyecto, memoria o estudio original bajo la supervisión de uno o más directores o directoras, en el que se integren y desarrollen los contenidos formativos recibidos, capacidades, competencias y habilidades adquiridas durante el periodo de docencia del Grado.

2.2.– El TFG deberá estar orientado a la aplicación de las competencias generales asociadas a la titulación, a capacitar para la búsqueda, gestión, organización e interpretación de datos relevantes, normalmente de su área de estudio, para emitir juicios que incluyan una reflexión sobre temas relevantes de índole social, científica, tecnológica o ética, y que facilite el desarrollo de un pensamiento y juicio crítico, lógico y creativo.

2.3.– El TFG debe ser defendido y evaluado una vez que se tenga constancia fehaciente de que el estudiante o el estudiante ha superado todas las materias restantes del plan de estudios y dispone, por tanto, de todos los créditos necesarios para la obtención del título de Grado, salvo los correspondientes al propio TFG.

A los efectos de la obtención de las tasas de rendimiento académico no serán tenidos en cuenta los resultados de la matrícula del TFG mientras no se haya podido defender el proyecto por no haber superado el total de créditos restantes.

2.4.– El TFG es un trabajo protegido por la Ley de Propiedad Intelectual. En consecuencia, la titularidad de los derechos de propiedad intelectual corresponderá a quien lo haya realizado, salvo que se haya establecido de otra manera en el documento de asignación del Trabajo Fin de Grado que cada estudiante haya aceptado, en los términos y con las condiciones previstas en la legislación vigente.

**Artículo 3.**– Inscripción y convocatorias.

3.1.– La matrícula del TFG se realizará dentro del plazo general de matrícula que establezca la Universidad, mediante el abono de los precios públicos que correspondan conforme a los créditos que tenga asignados. Para matricular el TFG será necesario tener matriculadas todas las asignaturas requeridas para finalizar el plan de estudios. Debido a circunstancias de índole excepcional las juntas de centro podrán establecer plazos extraordinarios de matrícula para el TFG.

3.2.– La matrícula dará derecho a dos convocatorias oficiales en cada curso académico de acuerdo a lo establecido en el calendario académico aprobado por el Consejo de Gobierno. El alumnado que no haya sido evaluado o no haya defendido su trabajo en las convocatorias establecidas para el curso deberá volver a matricularse en el siguiente curso académico.

3.3.- Ikasleek gradu amaierako lana zein hizkuntzatan egin nahi duten zehaztuko dute matrikulan.

3.4.- Ikastegiak, irakaskuntza antolatu eta programak egiteko irizpideak kontuan hartuta, gradu amaierako lanen defentsak ikasturte akademikoan zehar banatuta egin daitezela ezarri ahalko dute edo bestela, multzokatuta egin daitezela, azken kasu horretan ikasturte akademiko bakoitzean gutxienez bi aldi zehaztuz.

3.5.- Gradu amaierako lanaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikuluko honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzea.

**4. artikulua.**- Zuzendaria, hura esleitzea eta lanaren gaia aukeratzea.

4.1.- Gradu-amaierako lana graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide diren irakasleek edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoek zuzenduko dute. Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena egitea ere.

4.2.- Gradu amaierako lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.

4.3.- Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte gradu amaierako lanak graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide den edo gradua irakasten den ikastegiari atxikita dagoen zuzendarikide bat badago.

4.4.- Ikasleak gradu amaierako lan osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde baten egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, gradu amaierako lana unibertsitateaz kanpoko pertsonen zuzendu ahalko dute baina kasu horretan 4.1 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide-tutore bat egon beharko da.

4.5.- Ikastegiko Batzarrak, edo, hala dagokionean, hark eskuordetutako batzordeak, prozedura bat zehaztu eta argitaratuko du matrikula aldia bukatu orduko, zuzendaria eta gradu amaierako lana egiterakoan landu daitezkeen gaiak ikasleei esleitzeko eta gradu amaierako lana egin eta defendatzeko erabil daitezkeen hizkuntzak zehazteko.

**5. artikulua.**- Epaimahaia.

5.1.- Epaimahaia Ikastegiko Batzarrak, edo, hala dagokionean, eskuordetutako batzordeak ezarritako moduan eratuko dira, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren gradu amaierako lanen gaiak kontuan

3.3.- El alumnado especificará en la matrícula la lengua en la que desea elaborar y defender su TFG.

3.4.- Los centros, atendiendo a criterios organizativos y de programación docente, podrán establecer la celebración de las defensas de los TFG de forma Distribuida a lo largo del curso académico o de forma Agrupada en, al menos dos intervalos temporales comprendidos en cada curso académico.

3.5.- El acta de evaluación del TFG se deberá celebrar de acuerdo con lo establecido en la Normativa de Evaluación de la Universidad, siendo responsabilidad del Secretario o Secretaria del Tribunal su correcta cumplimentación y entrega a los servicios administrativos conforme al procedimiento establecido por el Centro. Asimismo, corresponderá a la Dirección del Centro velar por el cumplimiento de lo establecido en este artículo.

**Artículo 4.**- Del director/a, su asignación y elección del tema del trabajo.

4.1.- El TFG se dirigirá por profesorado miembro de un departamento con docencia en el Grado o profesorado adscrito al centro que imparte el grado. El profesor/a será responsable de exponer a cada estudiante las características del trabajo, de orientarlo en su desarrollo y de velar por el cumplimiento de los objetivos fijados, así como de realizar el seguimiento y elaborar un informe escrito previo a la defensa del que se dará traslado a la estudiante o al estudiante.

4.2.- El TFG podrá ser dirigido por más de una persona.

4.3.- También podrán dirigir TFGs los doctores y doctoras vinculados a la universidad siempre que exista un codirector o codirectora miembro de un departamento con docencia en el grado o adscrito al centro que imparte el grado.

4.4.- Si la estudiante o el estudiante desarrolla parte del TFG o su totalidad, en el marco de un convenio de prácticas, en otras instituciones u organismos distintos a la UPV/EHU, el TFG podrá ser dirigido por personal ajeno a la universidad, en este caso deberá existir un codirector o codirectora que cumpla las condiciones del apartado 4.1.

4.5.- La Junta de Centro, o en su caso, la Comisión en la que delegue, instrumentará y publicará, antes de la finalización del periodo de matriculación, un procedimiento para la asignación de los directores/as y los temas que podrán desarrollarse en la elaboración del Trabajo Fin de Grado, así como las lenguas en las que el TFG podrá ser elaborado y defendido.

**Artículo 5.**- Tribunal de evaluación.

5.1.- Los Tribunales de Evaluación se configurarán de la forma que establezca la Junta de Centro, o en su caso, la Comisión Delegada, atendiendo al número de alumnos y alumnas matriculadas y a la temáti-

hartuta. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetarako.

5.2.– Epaimahai bakoitza osatuko dute hiru kidek eta gutxienez, ordezeko batek. Guztiak izango dira graduako titulua irakasten duen ikastegiko irakasleak.

5.3.– Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira. Ikastegiak bestelako zehaztapenik eman ezean, epaimahaiburuak eta idazkariak horrela jardungo dute beti eta horiek izendatzeko irakasle kategoria eta antzintasuna hartuko dira kon-tuan.

**6. artikulua.**– Gradu amaierako lana aurkeztu eta defendatzea.

6.1.– Ikasleek matrikula eginda daukaten ikastegi-ko idazkaritzan aurkeztu beharko dute gradu amaiera-ko lana paperean eta euskarri informatikoan, lanaren izaerak bestelako biderik eskatzen ez badu behintzat, eta ikastegiak zehaztutako ale kopurua entregatu be-harko dute, ikastegiak ezarritako epearen barruan. Idazkariak kopia elektronikoko bat helarazi beharko dio epaimahaikide bakoitzari.

6.2.– Gradu amaierako lanaren defentsa egiteko ikasleek bertaratu egin beharko dute defentsa egiteko zehazten den tokira.

6.3.– Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarrita-koaren arabera graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta de-fendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola era, gradu amaierako lana Autonomia Erki-degoko bi hizkuntzetako edozeinetan egin eta defen-datzeko eskubidea bermatuko da.

6.4.– Ikasle bakoitzak gradu amaierako lanaren de-fentsa egiteko gehienezko denbora tarte bat edukiko du eta denbora tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkio-keten galdera, argibide, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die.

**7. artikulua.**– Ebaluazioa eta kalifikazioa.

7.1.– Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zu-zendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikas-leari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du ikasketen gidaliburuan gradu amaierako lanari buruz argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaz-tapeneko memorian ezarritakoari jarraiki.

7.2.– Ikasleak lana gaintzen ez badu, epaimahai-ak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txos-ten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bi-daliko zaio.

ca de los diferentes TFG desarrollados. Esta configu-ración deberá garantizar Tribunales de Evaluación en las dos lenguas oficiales.

5.2.– Cada Tribunal estará formado por tres per-sonas y, al menos, una suplente, todas ellas pertene-cientes al profesorado del centro que imparte el título de Grado.

5.3.– En cada Tribunal habrá una Presidenta/e y un Secretario/a. De no existir otra previsión en el propio Centro, se utilizará el criterio de categoría docente y antigüedad para nombrar el Presidente/a y Secretaria/o, que ejercerán como tales en todas sus actuaciones

**Artículo 6.**– Presentación y defensa del trabajo fin de grado.

6.1.– El alumnado deberá presentar en la Secreta-ría del centro en el que se encuentre matriculado, el TFG en formato papel y/o en soporte informático, salvo que la naturaleza del trabajo requiera otro me-dio, en el número de ejemplares y con la antelación que establezca el centro. El Secretario/a deberá hacer llegar una copia electrónica a cada uno de los miem-bros que constituyan el Tribunal de Evaluación.

6.2.– La defensa del TFG será realizada por la es-tudiante o el estudiante de manera presencial.

6.3.– La realización, así como la presentación y defensa se podrá efectuar en cualquiera de los idio-mas que se han utilizado en la impartición del grado conforme a lo dispuesto en la memoria de verifika-ción del título, siempre que se puedan establecer tri-bunales competentes en dichas lenguas. En todo ca-so, se garantizará el derecho a elaborar y defender el TFG en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma.

6.4.– Cada estudiante dispondrá de un tiempo máx-imo para la defensa, en la que deberá exponer los objetivos, la metodología, el contenido y las conclu-siones de su TFG, contestando con posterioridad a las preguntas, aclaraciones, comentarios y sugerencias que pudieran plantearle los miembros del Tribunal.

**Artículo 7.**– Evaluación y calificación.

7.1.– Una vez realizada la exposición del estudian-te o de la estudiante y, visto el informe elaborado por el director o directora, el tribunal deliberará sobre la calificación que le corresponde al estudiante o a la estudiante conforme a los criterios de evaluación pu-blicados en la guía docente del TFG y ajustado a lo dispuesto en la memoria de verificación del título.

7.2.– En caso de obtener la calificación de suspen-so, el tribunal hará llegar un informe al estudiante o a la estudiante con las recomendaciones oportunas para la mejora del trabajo y su posterior evaluación. Se enviará también una copia del informe al director o directora.

7.3.– Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

0 eta 4,9 artean:	suspentso (S).
5,0 eta 6,9 artean:	nahikoa (N).
7,0 eta 8,9 artean:	oso ongi (O).
9,0 eta 10 artean:	bikain (B).

«Ohorezko matrikula» eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleci. Eman-go diren ohorezko matrikulen kopurua ez da izango ikasturtean gai horretan matrikulatutako ikasleen ehuneko bosta baino handiagoa.

7.4.– Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako Batzordeari ahalmena ematen zaio arautegi hau garatzeko, baita arautegia aplikatzerakoan sor daitezkeen gorabeherak interpretatu eta ebazteko ere.

AZKEN XEDAPENA ARAUTEGIA.– Indarrean sartzea

Arautegi hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

7.3.– La calificación se otorgará conforme a la siguiente escala numérica de 0 a 10, con expresión de un decimal, a la que se añadirá su correspondiente calificación cualitativa:

0-4,9:	Suspensio (SS).
5,0-6,9:	Aprobado (AP).
7,0-8,9:	Notable (NT).
9,0-10:	Sobresaliente (SB).

La mención de «Matrícula de Honor» podrá ser otorgada a estudiantes que hayan obtenido una calificación igual o superior a 9,0. Su número no podrá exceder del cinco por ciento del alumnado matriculado en esa materia en el correspondiente curso académico.

7.4.– La revisión o reclamación de las calificaciones finales de los TFG se llevará a cabo de conformidad con lo previsto en la Normativa en materia de evaluación de la Universidad, aunque en ese caso, por tratarse de tribunal, la revisión de la evaluación en primera instancia se realizará por el mismo tribunal y en la siguiente instancia será resuelta por la Comisión de Reclamaciones del centro; cuya resolución será recurrible ante el Rector/Rectora de la Universidad en alzada.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se habilita a la Comisión de Ordenación Académica de la Universidad para el desarrollo de esta normativa, así como para la interpretación y resolución de cuantas cuestiones se planteen en su aplicación.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

Esta normativa entrará en vigor a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, tras su aprobación por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU.